

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Zubiarte euskaltegi publikoak hutsik dauden plazak betetzeko matrikula-epea zabaldu du

*Maila guztietan daude plazak libre, hasi oinarrizkotik eta buka EGako azterketaren prestakuntzan, eta izen-ematearen arabera esleituko dira*

Lunes, 19 de enero de 2015

[Zubiarte euskaltegi publikoak](#) astelehen honetan matrikulazio-epea zabaldu du irailean hasitako helduentzako euskara-ikastaroetan hutsik dauden plazak betetzeko. Maila guztietan daude plazak libre, hasi oinarrizkotik eta buka EGako azterketaren prestakuntzan (maila altua); leku horiek izen-ematearen arabera esleituko dira.

Interesa duten pertsonak matrikula euskaltegi publikoko instalazioetan egin behar dute (Zubiarte kalea, 13, Huarte). Eskolak otsailaren 2ko astean hasiko dira.

Txandaka edo gaueko ordutegian lan egiten dutenei, astean 8 edo 10 orduko aurrez aurreko plazak eskaintzen zaizkie; 5 orduko ikastaroak astean bi saiotan goizez, arratsaldez eta gauez; astean aurrez aurreko 6 orduko ikastaroak ikastetxeetako helduentzat, eta autoikaskuntzako ikastaroak astean aurrez aurreko 2 orduko saio batekin.

Matrikularen prezioak honako hauek dira: 36 (lehengo ikasleak) eta 61,40 euro (ikasle berriak) autoikaskuntzako ikastaroetarako; 46 eta 71,40 euro 5-6 orduko ikastaroetarako, eta 62,90 eta 88,30 euro, 8-10 ordukoetarako.